

Patronalaren blokeo eta fede txarrak zein hezkuntza sailaren pasibitate eta inakzioak ekintza sindikala eta juridikoa aktibatu beste biderik ez digu utzi

Birkokapen akordioa ez betetzeko asmoen aurrean Ekainak 17 eta 18 an mobilizazioak berrabiaraziko ditugu

Denok dakizuenez azaroan, lan gatazka gogor baten ondoren, gehiengo sindikalak eta patronal nagusiak akordio bikain bat sinatu genuen EAeko gizarte-ekimeneko ikastetxeen sektorerako, eduki oso garrantzitsuak dituena, eta langileen lan baldintzak nabarmen hobetzen dituena.

Besteak beste soldata eta lan baldintzak finantzaketa publikoarekin lotzeko patronalen betiko asmoa sahiestea, galdutako eros-ahalmenaren ia erdia berreskuratzea, kolektibo ezberdinentzat lan pertsonalerako ordu osagarrien aitortza, % 75ko lanaldiko erretiro partziala eta kolektibo guztientzat lanaldiaren % 100ean eta lan kontratu mugagabearekin errelebitak kontratatzea, zeinak birkokapenerako irizpide objektiboak ezartzearekin batera, matrikulazioaren beherakadagatik lanpostua galdu dezaketen langileak birkokatzeko bermea suposatzen duen.

Patronal eta sindikatuok greba amaierako akordioaz gain, birkokapen akordioa hitzartu eta sinatu genuen Hezkuntza Sailarekin, zehaztasun eta xehetasun gehiago ematen dituena eta prozedura eta helburuen inguruko zehaztapen gehiago dituena.

Greba amaierako akordioan jasotzen diren funtzesko edukietako asko jada ikastetxeetan aplikatzen ari dira, hala nola soldata igoerak edota lan kargak arintzeko ordu osagarriak eta lanaldi murrizketak.

Patronalak ordea, adostutakoa bere gain hartzeko borondate oso eskasa adierazten ari da prozesua oztopatzen eta atzeratzen aritu da etengabe. Azken oztopoa, lanpostua galtzen duten langileak birkokatzeko, patronalak jada sinatuta dituen funtsezko irizpideak erreglamenduan sartzeko asmorik ez duela izan da, lehendik hartutako konpromisoak indargabetu nahi baititu, birkokatze sistemaren eraginkortasuna erabat kolokan jarritz. Lanbide Heziketari dagozkion edukietan ere aurrerapausorik ez du eman.

Bestetik, Hezkuntza Sailak birkokapen Akordioa betearazteko duen erantzukizuna eta eragiteko aukera ikusita, ELA, Steilas eta CCOO sindikatuek gurekin biltzeko eta egoera bideratzeko aktiboki parte har dezala eskatu diogu behin baino gehiagotan. Eskaera hori ez da aintzat hartu ordea azken momenturarte, eta gurekin harremanetan jartzeko Ekainerarte itxaron du.

Patronalaren asmoa greba-amaierako akordioaren baldintzak eta espiritua aldatzea izan da. Gobernuaren finantzaketa jaso nahi du erretiro partzialen kostua ordaintzeko, baina bere gain hartu gabe lanpostua galtzen duten sektoreko langileak erizpide objektiboan bitartez birkokatzeko konpromezua, beren aldebakarreko kontratazio politikari eutsiz. Azken batean, birkokapenaren inguruan adostutakoa ez du bete nahi.

Egoera honen aurrean, sindikatuok gure esku dauden tresna guztiak aktibatu beste biderik ez dugu greba amaierako akordioan jasotzen diren eduki guztiak abian jar daitezzen.

Horrela, patronalaren blokeoaren aurrean birkokapen prozedura datorren ikasturtetan abian jarri ahal izateko pausoak aldebakarrez aktibatzen hasi gara jada, prozedura abian jartzeko oztoporik ikusten badugu bide juridikoa abian jarriko dugu, eta Ekainean greba amaierako akordioan adostutako edukien betearazpena exijitzeko lehenengo mobilizazioak deituko ditugu. Besteak beste Ekainak 17 eta 18rako elkarretaratzeak KE patronal nagusiaren egoitza aurrean zein Hezkuntza Sailaren Bilboko egoitza aurrean.

Patronalei greba amaierako akordioan jasotako edukiak adostutako terminoetan bere gain hartu, Lan hitzarmenean txertatu eta betetzeko galdegiten diogu. Hezkuntza Sailari berriz, birkokapen akordioa betearazteko bere esku dauden mekanismo guztiak abian jartzeko.

Bestela, mobilizazioa, ekintza sindikala zein juridikoa intentsifikatzen joan beste biderik ez digute utziko.

Euskal Herria 2020ko ekainak 11an



El bloqueo y la mala fe de la patronal, así como la pasividad e inacción del Departamento de Educación no nos ha dejado más remedio que activar la acción sindical y jurídica

Ante la intención de incumplir el acuerdo de recolocación, los días 17 y 18 de junio reanudaremos las movilizaciones

Como todos y todas sabéis, en noviembre, tras un duro conflicto laboral, la mayoría sindical y la patronal mayoritaria suscribimos un excelente acuerdo para el sector de los centros de enseñanza de iniciativa social de la CAPV, con contenidos muy importantes y que mejoran notablemente las condiciones laborales de los trabajadores y trabajadoras.

Entre ellas, impedir la intención perpetua de las patronales de vincular las condiciones salariales y laborales a la financiación pública, recuperar casi la mitad del poder adquisitivo perdido, el reconocimiento de las horas complementarias de trabajo personal para los diferentes colectivos, la jubilación parcial al 75% y la contratación de relevistas con contrato indefinido al 100% de jornada para todos los colectivos, que junto con el establecimiento de criterios objetivos de recolocación supone la garantía de la recolocación de los/as trabajadores/as que puedan perder su puesto por la caída de matriculación.

Patronal y sindicatos, además del acuerdo de fin de huelga, acordamos y firmamos un acuerdo de recolocación con el Departamento de Educación, que ofrece más detalles y contiene más concreciones sobre los procedimientos y objetivos.

Muchos de los contenidos fundamentales que se recogen en el acuerdo de fin de huelga ya se están aplicando en los centros educativos, como las subidas salariales o el reconocimiento de las horas complementarias y las reducciones de jornada para aliviar las cargas de trabajo.

Sin embargo, la patronal no ha mostrado voluntad de asumir lo acordado y ha estado obstaculizando y retrasando constantemente el proceso. El último obstáculo ha consistido en que la patronal no tiene intención de incluir en el reglamento que desarrolle la recolocación de las personas trabajadoras que pierdan su puesto, los criterios esenciales que ya tiene firmados. Pretende desvirtuar los compromisos adquiridos con anterioridad, poniendo en entredicho la eficacia del sistema de recolocación. Tampoco ha dado pasos en lo que a la Formación profesional se refiere.

Por otro lado, ante la responsabilidad del Departamento de Educación en la ejecución del Acuerdo de Recolocación y la posibilidad de incidencia que tiene para su cumplimiento, los sindicatos ELA, Steilas y CCOO le hemos pedido en varias ocasiones que se reúna con nosotros y que participe activamente para reconducir la situación. Esta petición no ha sido atendida hasta el último momento y ha esperado hasta junio para contactar con nosotros.

La intención de la patronal es la de cambiar las condiciones y el espíritu del acuerdo de fin de huelga. Pretende recibir financiación del Gobierno para sufragar el coste de

las jubilaciones parciales, pero sin asumir el compromiso de recolocar mediante criterios objetivos a las personas trabajadoras del sector que pierdan su puesto de trabajo, manteniendo su política de contratación discrecional. En definitiva, no quiere cumplir lo acordado en torno a la recolocación.

Ante esta situación, los sindicatos no tenemos más remedio que activar todas las herramientas a nuestro alcance para que se pongan en marcha todos los contenidos recogidos en el acuerdo de fin de huelga.

Así, ante el bloqueo de la patronal, hemos comenzado a activar unilateralmente los pasos para que el procedimiento de recolocación se pueda poner en marcha en los próximos cursos, de forma que si se obstaculiza la puesta en marcha del procedimiento, activaremos la vía jurídica. Además hemos convocado para junio las primeras movilizaciones a fin de exigir la ejecución de los contenidos acordados en el acuerdo de fin de huelga. Entre otras, concentraciones para los días 17 y 18 de junio frente a la sede central de la patronal Kristau Eskola en Donosti, así como frente a la sede del Departamento de Educación en Bilbao en Gran Vía 85.

Pedimos a las patronales que asuman los contenidos del acuerdo de fin de huelga en los términos acordados, los incorporen al convenio y los cumplan. Y al Departamento de Educación que ponga en marcha todos los mecanismos a su alcance para hacer cumplir el acuerdo de recolocación.

De lo contrario, no nos dejarán más remedio que ir intensificando la movilización, la acción sindical y jurídica.

Euskal Herria a 11 de junio de 2020

